



Olentzerok ez du aurten ere hutsik egingo. Gabon gau egunean, hilaren 24an, eguerdiko 12.00etan iritsiko da eliz atarira eta haurrekin solasean arituko da gutunak jasotzen dituen bitartean. Aurretik, Jaiotza Eramangarren Lehiaketan parte hartu nahi dutenek jaiotza Kontzejupean goizeko 10:30ean aurkeztu beharko dute. Eta Gabon eskean ibili ostean, musikarekin hitzordua. 18:30ean, Kontzejupean, Musika Bandak eta Iraurgi Abesbatzak kontzertua eskainiko dute bertaratzen direnak gabon giroan murgiltzera gonbidatuz.

[Ikusi egitaraua \(PDF\)](#)